

gaurkoa

Arrapaladan jazotzen dira gurean gertakari larriak; eta arrapaladan elkarrizkarrak.

Oihenart-en atsoztiz hura (174) datorrit burura: Gaitza gaitzagoak derahatza. Alegia, gertakari gaitza, gaitzago batek ahantz ezartzen duela.

Hori dela-ta, Carod-Rovira estilua baino zenbaitegun lehenago PNVaren barruan gertatutakoa ahaztuta bide dago.

Hots, Egibarren porrot nabarmenaren, eta Josu Jon Imazen garaitzaren gupidagabearen atzean, benetako Estatu Kolpea gauzatu dela atxeki behar genuke gogoan. Ezer ulertuko badugu bederen...

Gure inguruko enantzuna ezaguna da: Tira, tira, motel! Betikoan zegok PNVa. Anbigueriatan txapeldun, bere horretan jarraituko dik. Baina futsen, hau bat, Espainian eroso, eta ezker abertzalearen kontra, sutsu.

Iritzidpe honen egiazen parte ezin uka.

1936ez geroztik, gutxienez, PSOE-PNV ituna dago helburu. Alegia, abertzaltasuna PNVa da; eta PSOE, ezkerria. Eta ezker abertzalea PNVak posible denik ere ez baitu sekula sinetsi, soluzioa garbi du: Ajuria Enea helburu.

Hala ere, Arzalluz eta Egibarren garaian, asmo hori diximulatu egiten zen bederen.

Baina Josu Jon Imazek ez du moztortuta jokatzeko beharrik ikusten.

Seinalerik nabarmenena, Egibarren beraren bazterketa borobila. Hamazazpi urtez PNV-ko *number two* izan ondoren, hemendik aurrera andoaindarra «inor» ez da izango. Aparato guztia Imazen konfiantzazko jende osatuta baitago.

PPren aldeko "El Diario Vasco"ko Alberto Suriok,

Txillardegí • Idazlea

Estatu kolpea

Josu Jon-ekin urtarilaren 25an elkarrizketa mamitsu bat argitaratzen. «Señales de cambio» erreparatu dituela aipatu zuen.

PSOEnen aldetik ere, era berean, baikortasun giro leun herria hedatu da, eta Areskek, pozarren mintzo, hau zion: «Ahora sí que parece que se va a poder hablar con el PNV».

Imazek argi utzi zuen agintea hartu zuen eguneari bertan zer egin nahi duen. Ramon Sota eta Arantxadi "Kiskitza" eredu hartuz, sotismoa arripiztu nahi du; 1921ko lema-kolpea eman, eta berriro Comunion eraiki.

Honek zatiketa ekarri zuen, jakina denez.

Baina Imaz segurua bide dago. Ez zaio faltako neguritikoen babesa, ezta Arregiren lagunena ere. «Un sa regionalismo, un sentirse cómodos en España», eta teknokrata eskuindar mordot bat bere aginduetara.

PNVko erremalak hartu zituen hitzaldia hartuko dugu *geure azterketaren* oinarri. Baita hemen eta han egun hauetan esandako esaldi adierazgarri batzuk ere.

1. «Nazio etnikoari ez» aitakia harturik, hau esan du: «Queremos una nación compuesta por todos los que aquí vivimos, independientemente de que hayamos nacido en Bilbao, Etxegarate, en el Valle de la Serena, o en Senegal... Queremos una nación cívica, la patria abierta e integradora; en la que todos los ciudadanos son nacionales precisamente por el hecho de ser ciudadanos... Una nación en la que todos y todas tenemos

los mismos derechos civiles y políticos».

Eta Mitxelena oroitarriz, hitz hauek erantsi: «Dentro de un pueblo y de sus características, no hay nada esencial ni inmutable. Todo cambia. La única cosa esencial es la continuidad».

Euskal Herriaren ezaguerien hesparruan bertan («característica»), ezer aldagaitzik ez badago, zertarako eutsiko diogu *geure nazio-hizkuntzari*? Teknologiarren apologia beroa egin ondoren, zertarako euskaldun?

Josu Jon-ek orain dela 40 urteko eztabaidetara gara-

matza.

2. Nazio Azkapenari ere, ez. Lotsarik gabe: «El debate sobre la independencia no está encima de la mesa... Los vascos hemos sufrido demasiado las fronteras, como para que nuestro objetivo sea crear unas nuevas».

3. Auto-Determinazioa behar, jakina, hori irakurritako gero, bide bera: aipatu ere ez bere sarrerari hitzaldian: «La nación vasca debe sustentarse en los Derechos Históricos».

Ongi jaiok gaude Auto-Determinazioaren aldeko plataforma bat PNVrekin eraiki nahi badugu...



Zer dira, bestalde, horren gogoko dituen «Eskubide Historiko» horiek? Horren gurgarri al dira bada Euskal Herria zazpi puskatan utzi ziguten Lege Zaharrak?

Barakaldoko junteroak, erdaraz ez zekitelako, Gernikako Batzarretik botatzea zuzenetsi zutenak? Beotibarko batalla goretzi zutenak? Antzinako gure «oitura garbiyak» izeneko ipuinak sinetsi beharko al ditugu 2004an?

Nola bizi ziren, adibidez, euskal emakumeak garai idiliko haietan? Sukaldean sartu, ohore iturri bakarra seme-alaba pila bat izan; eta egunero, jai ta aste, garaiz otorduk zintzo-zintzo etxeko arret eskaintzea. Danborradetan eta alardeetan oraindik somatzen den bazterkeria lotsagarriaren bidetik...

Ez adarra jo behintzat zure eskubide historiko horiek. Auto-Determinaziorari bai.

4. Gogoan har, garbi ikusteko, Alberto Suriorekiko elkarrizketa.

Galdera hau zen: «¿La suya es una propuesta más para quedarse en España, que para irse?». Eta Josu Jonen erantzuna hau izan zen: «Eso es evidente».

Ez dakit nik Iparraldeko aberkideek zer pentsatu ote duten eskaini dien etorkizun espainiar horretaz...

5. Eta Frente edo Bloke Abertzaleari buruz, zer?

Hona erantzuna: «La idea del frente abertzale no está en absoluto recogida en la ponencia». Kitto.

Eta Partidu Kontseiluari buruz, bide betetik: «Ni si quiera se menciona el término nacionalista en el marco de la creación de un consejo de partidos».

6. Herri honek, eta abertzaleok bereziki, esperantza giroa behin ezagutu dugu azkeneko urte hauetan. Hortaz, Lizarrar-Garazi delakoaz, zer?

Hona Imazen esanak: «Entonces arriesgamos para alcanzar la paz. Pero aquello ya terminó. La ponencia del PNV tiene un capítulo que hace la autocritica de aquel proceso. La hemos hecho... Aquella negociación es el pasado, y desde luego sabemos que es irreplicable».

Gauzak garbi behintzat.

7. Telesforo Monzonek 1977an egindako saiaketaz ere, ezezko borobila Imazek: «No vamos a abandonar nuestro camino, ni a renunciar a lo que somos. No lo hicimos en Txiberta hace 27 años, y mucho menos vamos a hacerlo ahora en el año 2004».

8. PNVren proiektuan ETak desagertzeko beste eskubiderik ez du...

Baina PPren eta PSOEren alde mintzatzen da aurrerik: «No a la abstracción de la pluralidad de la sociedad vasca... Todas las formaciones, desde la legítima que les dan sus votos, tienen un derecho legítimo a representar también al pueblo vasco».

Eta legetik al jarritako Batasuneko boz-emaleek zer egin behar dute? Hau berdin zaio Josu Joni. Zipitzik ez.

Aski bedi gaurko. Euskal karlismoarekin gertatu zen bezalaxe (eta geronek Arana-Goirenen leerroak gogoratzu berriki egun dugun bezala), gaur ere, gure guraso eta aitona-amonak jekideak direla jakinik, eta beren borondateirik hoberenarekin PNVa oraindik sostengatzen dutelarik, nola ez dugu berorien ituleria tentuz eta pazientziatzat argituko?

Noski!

Guri dagokigu, halere, Josu Jon Imazen Euzkadi Buru Batzarrek Euskal Herria nora eraman nahi duen aurrerik salatzea.

Askotan mingarri gertatuko zaigun arren. *

koma

Original

Iturgaiz cabalga de nuevo. Silente desde que todo el mundo supiera de sus tejemanejes digitales gracias a las cámaras de televisión, sale a la palestra para apoyar filtraciones a los medios de comunicación «para que la opinión pública conozca los tejemanejes de Carod». O sea, los Servicios Secretos al servicio de la prensa. Original. *

Olaso

jo puntua

Joxerra Bustillo • Periodista

Ocaso del Espanyol

Los llamados Países Catalanes disponen todavía de cinco equipos de fútbol en la liga de las estrellas, o sea, la primera división española. Y digo todavía porque un equipo señero de Barcelona, que no es el Barça, se debate en los últimos puestos de la tabla y, si nadie lo remedia, perderá la categoría allá por el verano.

Puede ser una metáfora de lo que está pasando en otros terrenos, como el político, donde lo que algunos llaman sentimiento de pertenencia a España pierde adeptos, aunque no al ritmo que uno desearía. El Espanyol afronta su ocaso como equipo que nació como alternativa al F.C. Barcelona, ese aglutinante de los sentimientos catalanistas plagiado de holandeses.



veintena de personajes, como Llach o Bellmunt, declaran la maldita frase que tanto duele en el paramo madrileño. A mí no es que me guste demasiado esa autoafirmación negando la pertenencia a la metrópoli, preferiría un sencillo «soy catalán», pero es un paso en la mejor dirección.

Estos días recorre Alexandre las capitales vascas presentando su libro. Intenten escucharlo, porque merece la pena. Enredados en nuestras batallas cotidianas, a veces necesitamos que venga alguien de fuera a refrescarnos el paisaje y darnos un par de ideas. Hablar con desparpajo de nuestra condición de no españoles viene a ser una gloriosa coincidencia, compartida por los galaico-portugueses, que tenemos que disfrutar más a menudo.

A casi treinta años de la muerte de Franco, ser español no está de moda, pese a las ganas de algunos ex profesores de Zorroaga y ciertos afiliados de base del PSOE. Su rancia defensa de una nación que sólo existe en sus descompuestos cerebros les está perdiendo, y, cada vez que ellos hablan, nosotros crecemos. Que sigan hablando. *